



## Hauek dira Bertsolari Txapelketa Nagusiko parte-hartzaileak

Lurraldeetako txapelketetan eskuratu dute bertsolariek Txapelketa Nagusian izena emateko aukera. Ekainaren 22an aurkeztuko dugu txapelketa, eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago.

Halaberrez txapelketa batetik besterako laurteko zikloa luzatuta, **duela zenbait hilabete iragarri bezala**, 2022ko udazkenean izango da Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Txapelketan parte hartzeko aukera lurraldeetako txapelketetan eskuratu dute bertsolariek: 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan, 2021ean amaitutako Bizkaikoan, Nafarroakoan eta Xilaban (Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoakoa), eta oraintxe egiten ari den Arabako Bertsolari Txapelketan. Azken hau ezustean atzeratu behar izan zen neguko osasun egoera tarteko eta ekainean amaitzen denean irekiko zaie sailkatuei izena emateko aukera; orduan ezagutuko ditugu Txapelketa Nagusiko ordezkari arabarrak.

Arabako parte-hartzaileen izenen faltan, beraz, hau da Bertsolari Txapelketa Nagusian izena eman duten bertsolarien behin-behineko zerrenda:

Agin Laburu Rezola, Aitor Bizkarra

Ruiz, Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Aitor Mendiluze Gonzalez, Alaia Martin Etxebeste, Amaia Iturrioz Etxaniz, Amets Arzallus Antia, Ane Labaka Mayoza, Asier Azpiroz Iztueta, Beñat Gaztelumendi Arandia, Beñat Iguaran Amondarain, Eneko Lazkoz Martinez, Eñaut Martikorena Lizaso, Gorka Pagonabarraga Agorria, Haritz Mujika Lasa, Iban Urdangarin Lardizabal, Imanol Uria Albizuri, Iñaki Apalategi Astigarraga, Iñigo Mantzizidor Larrañaga, Joanes Illarregi Marzol, Jone Uria Albizuri, Julio Soto Ezkurdia, Maddalen Arzallus Antia, Maialen Akizu Bidegain, Maialen Lujanbio Zugasti, Miren Amuriza Plaza, Miren Artetxe Sarasola, Nerea Elustondo Plazaola, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Bartra Arenas, Oihana Iguaran Barandiaran, Onintza Enbeita Maguregi, Patxi Iriart Hiribarren, Saioa Alkaiza Guallar, Sustrai Colina Acordarrementeria, Unai Agirre Goia, Unai Gaztelumendi Arandia, Unai Mendizabal Jauregi, Xabat Gallettebeitia Abaroa eta Xabier Silveira Etxeberria.

### Xehetasun gehiago, ekainean

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irailaren 24an abiatuko da Getxon. 2005etik finalak Barakaldoko BECen egin eta gero, tokiz aldatuko da: finala egiteko baldintzak dituela aztertuta, Iruñeko Nafarroa Arenak hartuko du Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala abenduaren 18an. Bertsozale Elkarteak bertsolaritzaren eta euskararen lurralde osoan eragitea du helburu eta horrekin bat egiten du leku aldaketak.

Ekainaren 22an aurkeztuko dugu Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta orduan emango ditugu xehetasun gehiago.



**JOSU AMEZAGA ALBIZU**  
URIBE-KOSTAKO BERTSOLARI  
TXAPELKETA. FINALA  
Getxo, 2022-04-02

Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

Atsegin handiz ipini dizut  
Jone gaur zure txapela  
berrogei urte pasatu dira  
gu ere ibili ginela...  
Gaurko saiotik eramango dut  
gauza eder bat, itzela  
demostratua duzelako  
batua euskara dela  
beste edozein euskalkik duen  
balio bera duela.



Irailaren 24an hasiko da 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. //XDZ

# “Zaintzaz eta bizitzaz ari garen uneotan, bada lan hori balioan jartzeko garaia”

**Amatasunaren sarean bertsoan eta dantzan ikusiko ditugu Amaiur Luluaga eta Oihana Iguaran AMAraun ikuskizunean. Apirilean eskaini zuten lehen emanaldia Amasa-Villabonako Gurea aretoan, eta aukera gehiago izango dira maiatzean Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik.**

“Nire azken bi urteak ikusi ditut”; “Ukituta eta hunkituta”; “Indartsua eta magikoa”; ... lehen emanaldia ikusi zutenen iritziak entzunda, konexio berezia sortu zela dirudi. Nola bizitu zenuten zuek?

Ba gu ere hitz horiek eta estreinaldian bizitakoak hunkituta jarraitzen dugu. Gai delikatu hartu genuen lanerako, intimotzat jo den arren politikotik asko duena, eta guretzat oso garrantzitsua zen jendeak nola hartuko zuen ikustea, hartuko ote zuen ere konprobatzea. Oholtzan ari ginela sentitu genuen publikoa hor, siltasunetan, barreetan, txaloetan... ederra izan zen.

Emanaldia sortzean sentitzen genuen eta estreinatuta berretsi dugu: elkarrizketa abiatzeko hari mutur bat dela AMAraun; jendeak heldu dio, eta oso pozik gaude.

Amatasunaren eredu askotarikoak irudikatu nahi izan dituzue, baina emanaldiak iraupen jakin bat du: erraza egin zaizue zedarririk horiek zehaztea?

Zedarritzea derrigorra izan da, bai iraupenagatik eta bai hartzen den bide bakoitzak beste batzuk uztea dakarrelako. Zentzu horretan, gorputzari eman nahi genion garrantziak markatu du bidea: erditzea, erditze-ostea eta edoskitzea beste era batera irudikatu nahiak, horiek oholtzan gorputzeko erabakiak amatasun biologikoan kokatu gaitu, esaterako.

Gero beharra sentitu dugu bestelako amatasunei ere aipamena eta aitortza egiteko emanaldian zehar, denak kabitzen ez direla jakin arren. Amatasunaren molde ideala hautsi beharra sentitu dugu, barruan kabitzen ez zaizkigun guztietatik abiatuta. Baina ezinezkoa da. Pitzadura batzuk utzi ditugu bistan eta espero zirrikitu horietatik arnasa sartzeari bizipenei.

Gorputzak oholtzan garrantzia handia hartzen duen neurrian, amatasunak dakartzan eragin fisikoek ere lekua dute emanaldian. Amatasuna gorputzeko ematen duen aukera da, beharbada, emanaldi honen punturik indartsuena?

Emanaldi honek puntu desberdinak ditu, eta norbera nondik datorren, desberdin ukituko du. Ama izan diren gehienek gorputze hori azpimarratu dute, hori geratu zaie iltzatuta. Gorputzean duen eragin hori esploratu nahi izan dugu, bai mugimenduz eta bai hotsez. Mugimendua eta mugimendu eza, arnas estua eta arnas etena.

Hori urrun bizi duten askok, ordea, beste puntu batzuk azpimarratu dituzte, eta ederra da.

Egia da, baita ere, ahots zein gorputz bidez gorputzea interpretazioa dela; hau da, ez da ahaztu behar oholtzan gaudela eta ikuskizun bat izanik nolabait guztia koreografiatua dagoela.

“Ama izan ala ez izan”. Bidegurutze horretan ez dagoenarentzat ere hurbilpen interesgarria izan daiteke?

“Ama izan ala ez izan” bidegurutze gisa agertu nahi dugun hau bat da, ze normalean ez da galdetzen: galdetzen da noiz, edo noizko. Eta bai ala ez horren barruan ere, gure buruari galdetu

nahi diogu nola, eta ze preziotan. Horrek emakumeoi zuzenean eragiten digu, ama izan zein ez. Baina emanaldia prestatzen ari ginela landu dugun bidean, gure buruak alaba gisa kokatu ditugu, gure amak berrirakurritu, euren ibilbidea berrikusiz, euren lana aitortuz, euren arreta jarritz.

Guztioak dugu ama bat (gutxienez). Amatasuna jendarte osoaren zutarria da, denoi eragiten digu. Amatasuna, beraz, gai unibertsala da. Interesatu beharko litzaiguke gure inguruko amak nola dauden, eta gure amek nola bizi duten. Zaintzaz eta bizitzaz ari garen uneotan, bada lan hori balioan jartzeko garaia.

\* Elkarrizketa osoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean



## Hurrengo hitzorduak

Maiatzak 7 – Igorre  
Maiatzak 14 – Zizurkil  
Maiatzak 20 – Arrigorriaga  
Maiatzak 22 – Anoeta  
Ekainak 17 – Munitibar



Oihana Iguaran eta Amaiur Luluaga ditu protagonistak AMAraun ikuskizunak. //Lanku

# Sardiniako bertso jarriak eta bat-batekoak gurean

**Emanaldia maiatzaren 19an eta 20an eskainiko da Usurbilen eta Azeitian, hurrenez hurren. Sarrerek 5 euro balio dute bazkideentzat, eta [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eskuratu ahal izango dira maiatzaren 5etik aurrera.**

Bidaia Bertsozale Elkartek bere ekimenez eta elkarlanean antolatutako saio esperimentalak dira. Ohiko bertso plazatik harago, bestelako emanaldi eta saiakera berritzaileei aukera ematea du helburu, bertso plazaren formatuen ertzak zorrozteko eta zabaltzeko.

Horri Bertsozale Elkartek atzerriko kantu inprobisatuekin duen elkarlan esperientzia gehituta atera zaigu hurrengo bertso bidaia proposamena. Sardiniako kantu inprobisatua izango dugu gurean; zehazki, Usurbilgo Sutegi aretoan izango da lehen emanaldia maiatzaren 19an, 19:00etatik aurrera, eta Azeitik Sanagustin Kulturgunean bigarrena, 22:00etan, maiatzaren 20an.

Tra Parola e Musica - Casa di Suoni e Racconti erakundeak ekoiztako *Improvvisa un'antiga poesia* ikuskizuna da eskainiko dena. Italia Txiki erakundeak bideratuta eta Bertsozale Elkartek antolatuta iritsiko da gurera. Hitzaren, musikaren eta irudien bidez, Raimondo Piras Sardiniako poesia lehiaketetako cantadore handienaren inguruan osatutako emanaldia da. Sardiniako cantadoriekin batera, Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariek hartuko dute parte.

Sarrerek 5 euroren truke eskura ditzake elkarteko bazkideak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian maiatzaren 5etik aurrera; bazkide ez direnek, 7 eurotan. Egunean bertan ere izango da aukera leihatilan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Oreka dirulaguntza jaso du Bidaia egitasmoak.

## Bertsolarien eta Madeirako inprobisatzaileen saioa Porto da Cruzen

Bestalde, baina kulturen arteko ekimenei lotuta, Agência de Promoção da Cultura Atlânticak antolatuta eta Flores de Maio eta Xarabanda erakundeen laguntzarekin eta Bertsozale Elkartean parte-hartzearekin, bertso saioa antolatu da Madeirako Porto da Cruzen (Portugal). Maiatzaren 7an izango da, 16:30ean, Flores de Maio gunean; Asier Galarza eta Eli Pagola izango dira bertsotan eta Maialen Velarde itzultzaile lanetan.

## Irailean itzuliko da Hitzetik Hortzera

**Bereziki gustura amaitu du denboraldia Hitzetik Hortzerako lantaldeak. Udazkenari begira, hurrengo prestatzen ari da taldea orain.**

Apirilaren 2an amaitu zuen 32.denboraldia Hitzetik Hortzerak. 26 programa ekoitzi dira, eta pantailara ekarri dira, besteak beste, Bertso Udalekuak, Señora Sariketa edota Sebastian Lizasori buruzko monografikoa. "Gure helburua bertsozaleari ahalik eta eduki anitzena ahots ezberdinetatik eskaintzea da, eta aurten bereziki gustura gaude emaitzarekin", azaldu du Gaizka Azkarate Hitzetik Hortzerako zuzendariak.

Erronka ere izan da, denboraldi honetan pandemiaren arrastoa sumatu baita oraindik: "Ziurgabetasun handia suposatu zuen, batez ere lehen hilabeteetan". Aurreko udaberrian egindako lanketa eta lantaldeak egoerara egokitzeko izan duen gaitasuna azpimarratu ditu Azkaratek denboraldia modu arrakastatsuan osatzeko.

### "Ilusio handiz begiratzen diogu udazkenari"

Igandetik larunbatera pasa da denboraldi honetan Hitzetik Hortzera: "Orotariko iritziak jaso ditugu, baina orokorrean emaitza eta ikuslearen erantzuna onak izan dira".

Denboraldi hau amaituta, udazkenari begira jarri da lantaldea: "Udazkenean jokatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta horrek Hitzetik Hortzeran ere eragina izango du, noski. Denboraldi berriaren diseinu fasean ari gara. Ilusio handiz

begiratzen diogu udazkenari, eta bertsozaleak bertsolaritzarekin gozatzeko aukera izango du", aurreratu du Azkaratek.



Gaizka Azkarate, Hitzetik Hortzerarako grabazio lanetan.//XDZ





## Puntu jarrita

IDOIA ANZORANDIA KAREAGA

A zer galderak, Ainhoa! Nik nire esperientzia laburretik saia naiteke erantzuten, baina gustatuko litzaidake beste gai-jartzaile askoren erantzuna entzutea ere.

Gai-jartzaile lanetan hasi aurretik bertsoan ibiltzen nintzen. Gustura aritzen nintzen kantuan, baina nire ingurukoekin bakarrik. Ausardia falta edo ahalduntze falta, akaso... Heldu zen Bizkaiko Bertsozale Txapelketa eta ingurukoek izena ematen zuten bitartean, nik pauso bat eman nuen atzera. Ez nintzen abestera ausartzen, baina baiezkoa eman nuen. Mundu eder bat zabaldu zitzaidan orduan! Jende zoragarria ezagutzeaz gain, ertz asko dituen lana ezagutu nuen. Gaia atera, zergatik, norentzat, non... Pentsatu, formulatu, berriz formulatu... Probatu... Berriz formulatu... Oreka, oreka zaintzeko taulak... Nork esango zidan niri ikusle edo bertsoan ibiltzen nintzenean horrenbesteko lana eta eztabaida zegoenik gai bakoitzaren atzean? Uste dut probatzen ez den artean, ez dela ezagutzen gai-jartzaileok egiten dugun lana, eta beraz, zaila dela gure lanaren aitortza egitea (hala ere, zenbat entzulek eta bertsozalek egin digun, e? Eta zelako indarra ematen duen!). Baina zer eskatuko diegu guk ere ez badugu gure artean honi buruz hitz egin? Ez badugu konpartitu bakoitzak zelan bizi duen?

Erronka asko ditugu mahai gainean gai-jartzaileok ere, eta bada garaia elkartu eta ekiteko, ezta? Bakoitzaren bizipenak eta iritziak trukatu eta elkarrekin ikasi. Elkar elikatu eta elkar zaindu, entzun eta ulertu. Espazioak hartzen eta espazioak uzten, denok izan dezagun bertso-munduari gure ekarpena egiteko aukera. Begirada anitzeko taldea gara; kolore askotakoa, baina zer ederra den ostadarra ere!

Zuetako bakoitzarekin konpartitutako momentu bakoitza ikaspen prozesua izan da niretzat. Bide batez, eskerririk asko zuei guztiei! Gustura helduko nioke, beraz, Ainhoak botatako galdera sortari eta baita beste mila gairi ere! Baina zuekin, elkarrekin.

Beñat, zer diozu? Elkartuko gara? Jarriko dugu bilera-bazkaria egiteko eguna?

# Koplak

## Maiatzean kobratuko da bazkideztza kuota

Aurreko berripaperean aipatu bezala, Bertsozale Elkarteko bazkideok maiatzean ordainduko dugu urteko bazkideztza kuota; aurreko urteetako kopurua mantendu eta 60 eurokoa izango da aurtengoa ere. Kontu korrontetik kobratuko da kopurua laster.

# Poto-Finixa



"...garen zerbait baizik"

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Elkarlan hitzarmena sinatu dugu Euskaltzaindiarekin

Bost urterako lankidetzat hitzarmena adostu dugu Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkartek. Euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako egitasmoak bultzatuko ditugu: tartean, Mintzolak abiatutako zenbait ekimeni emango zaie jarraipena, eta Bertsozaleek kantuan darabilten egungo hizkuntzaren azterketa linguistikoa ikerketa jarriko dugu abian.



Haizea Arana Leire Vargas Aner Euzkitze Oihana Arana

Zuzendaria: Edurne Azkarate

eRRe

Aldarri bat bertsoz